

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

41/2022 Mozioa, apirilaren 27koa, gas naturalaren azken baliabideko tarifaren erabilera arautzen duten arau berriak aztertzeko eta berrikusteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

41/2022 Mozioa, apirilaren 27koa, gas naturalaren azken baliabideko tarifaren erabilera arautzen duten arau berriak aztertzeko eta berrikusteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari eskatzen diote gas naturalaren azken baliabideko tarifaren erabilera arautzen duten arau berriak azter eta berrikus ditzala, etxebizitza bakoitzeko zenbatzen den urteko gas-kontsumoa azken baliabideko tarifetan ezarritako kontsumo maximoa baino txikiagoa duten auzokoen erkidegoei sarbidea emateko aukera balioztatu dezan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari ekimen gehiago egitea eskatzen diote, tokiko mailan energia berriztagarrien erabilera eta energia-eraginkortasuna sustatzen jarrai daitezten energia-komunitateen eta -kooperatiben bidez, horiek kontsumitzailea ahalduntzen baitute eta energia-trantsizio bidezko bat ahalbidetzen baitute.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA